

noaua



AULKI HUTSAK BETEKO DITUZTEN ORDEZKARI POLITIKOAK HAUTATZEKO GARAIA IRITSI DA


Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak igande honetan egingo dira / 06-11

ARGAZKIA: IREKIA.EUS



USURBILEGINEZ

Jaietako txupinazoa nork botako duen proposatzeko garaia iritsi da / 03



NOAUA

Dantzari Txiki Eguna larunbat honetan ospatuko da / 12



NOAUA

'Zumetaren Usurbil' islatzen duen erakusketa zabaldu dute Sutegin / 13



NOAUA

Igande honetan bertso-ibilaldia, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin / 22




Rumania

IRTEERA 2024ko iraila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

·BEILATOKI GUZTIAK ·ERRAUSKETAK ·LEKUALDAKETAK



www.funerariagonzalez.es

ORIANTE BHI

www.oriarte.hezkuntza.net

BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25



Larrekoetxe eraikina
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92

"Nork botako du Santixabeletako txupinazoa?"

Santixabelekin lotutako bi deialdi jarriko dira martxan apirilaren 22tik aurrera: festetako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketarena eta txupinazoa nork bota erabakitzekoa. Bi deialdiak maiatzaren 24 arte egongo dira martxan.

Santixabeletako egitaraua diseinatzeko lehiaketa

- Udalak eta Jai Batzordeak elkarlanean antolatzen dute.
- Lanak udaleko erregistroan aurkeztu behar dira.
- Lehiaketaren oinarriak usurbilkultura.eus web orrialdean

topatuko dituzue. 943 37 19 99 telefono zenbakira deituta.

Santixabeletako txupinazoaren botatzailea argitzeko deialdia

Usurbilgo Jai Batzordeak txupinazoa nork botako duen erabakitzeko herritarren ekar-



Datorren astelehenean zabalduko da proposamenak helarazteko tartea.

penak jasotzeko deialdia egin du.

- Herritarrek txupinazoa nork botatzea nahi duten proposatu dezakete eta proposamena bidaltzearekin batera zergatia argudiatu behar dute.

- Proposamenak helarazteko bi modu: kultura@usurbil.eus helbidera idatziz, edo apirilaren 22tik aurrera udaletxean, Sutegi udal liburutegian, Oiar-do kiroldegian eta Potxoenean egongo diren kutxetan utzita.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Apirilaren 18tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Apirilaren 25an osteguna, garbigune hau Kale-zarrera eramango dute.

1964an jaiotako bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatu dute; maiatzaren 15era arte 647 458 997 telefono zenbakian (Mari Jose). Telefono zenbaki horretara deituta jaso ahalko dira ordainketa nola egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

1952an jaiotako bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatuta dute kinto bazkaria. Artzabalgogorri jatetxean batuko dira. Oturuntza eguerdiko 14:00etan hasiko da.

Izena aldeztatik eman behar da. Interesatuak honako telefono zenbakira deitu behar dute: 620 516 715 (Javier).

Sendabelarren tailerra hilabetez atzeratu dute

Txokoaldeko Txokoargi kultur elkarteak "Sendabelarrak eza-gutu eta bildu" tailerra antolatua zuen apirilaren 20rako, baina maiatzaren 18an egingo dute, 10:00-12:00 artean. 12 lagunentzako tokia egongo da. Izena aurrez eman behar da: 619 591 849 (17:00-19:00 artean deitu).



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibildidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ

Makina bat liburu liburu-makinan

Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatuko da eta Bakartxo eta Breogan liburuzainek hainbat ekimen antolatu dituztela horren bueltan.

Aitzakia modura erabiltzen da egun hori irakurzaletasuna sustatzeko. Zeren inork ez du zalantzan jartzen irakurzaletasuna sustatu egin behar dela. Irakurtzea onuragarria da umeentzat, nerabeentzat, gazteentzat eta helduentzat. Bai, helduentzat ere bai. Ez ditzagun jarri beti jomugan umeak, nerabeak eta gazteak. Irakurtzeak garuna garatzen eta kontzentratzen laguntzen du; irudimena bultzatzen du; enpatia izaten laguntzen du; gaixotasun neurodegeneratiboak saihesteko aukera ematen du; eta egoikiago hitz egiten laguntzen du, besteak beste. Ikerketek diote hori dena.

Eta hala ere, umeen kasuan bezala, heldu batzuentzat irakurtzea plazerezko ekintza den bitartean, beste batzuentzat denbora galtze huts bat besterik ez da. Batzuentzat denbora-pasa zoragarria da irakurtzea; beste batzuentzat, aldiz, behartutako ekintza bat.

Agian gehiago sozializatu eta egoteak lagunduko luke, gure bizitzetan liburuak eta irakurketak presentzia



Zergatik ez izan eskura liburu-makinak edari- eta janari-makinen ondoan?

gehiago edukitzeak, alegia. Hori pentsarazi didate azkenaldian ikusitako pare bat gauzek. Bata, telefono kabina bat liburutegi bihurtuta ikusteak. Herrian daukagun puntu horia bezala, baina telefono kabina bat. Hantxe zegoen, liburuz be-

“AGIAN LIBURUEK GURE BIZITZA SOZIALEAN PRESENTZIA GEHIAGO EDUKITZEAK IRAKURZALETASUNA SUSTATZEN LAGUNDUKO LUKE”

tea, edonork hartzeko moduan. Eta non? Eski estazio batean. Jendea ibiltzen den lekuan. Eskiko materiala alokatzeko dendaren eta taberna baten parean. Ez da kokapen txarra.

Eta bestea, Donostiako zinema batean. Sarrera nagusitik sartu eta barruko aretoetara iritsi aurretik, txoko batean (hau da, zinemara joandako guztiak pasatzen diren lekuan), liburu-makina bat zegoen. Kafe-makina, edari-makina edo sandwich-makina bezalakoa, baina barruan liburuak dituena. Liburu gaurkotuak, ongi aukeratuak eta modu txukunean.

Ospitaleko janari- eta edari-makinen ondoan horrelako bat irudikatzen duzue? Normalean irakurtzeko denbora izan dezakegun lekua da... Edo kiroldegiko makinen ondoan? Gorpuzarekin batera burua, munduaren ikuspegia eta errealitatearen irakurketa ere osasuntsu edukitzeko. Edo Laurok-eko makinen ondoan liburu-makina bat? Ikastolan irakurrarazitako liburuak ez diren beste liburu batzuekin, adibidez? Bakartxoren eta Breoganen irizpideekin egindako eskaintza batekin? Kromotrukean aritzeaz gain liburu-tako pertsonaien gorabeheraz aritzeko? Zergatik ez?

Aho-hortzetako osasuna hobetzeko hitzaldi sorta

Hortz kliniketako higienista izateko ikasten ari da Moraysys Silva Rodriguez usurbildarra Easo Politeknikoan eta gradu amaierako proiektuaren bitartez, usurbildarren aho-hortzetako osasuna hobetzen lagundu nahi du beste hiru kiderekin batera.

Apirilaren 26an, Potxoenean

Lehen hitzaldia apirilaren 26an izango da Potxoeneko proiektore gelan. 16:00etan hasiko da.

Maiatzaren 3an, Udarregin eta Emakumeen Etxean

Udarregi Ikastolan eskainiko dute eguneko lehena 14:45ean. Solasaldi hori haur eta gazteei zuzendutakoa izango da. 18:30ekoa aldiz, Emakumeen Etxean izango da eta helduei eskainia izango da.

Auzotarrek irekiko dute Pelaiouenea larunbatean

“Auzolanean emango diogu hasiera Pelaioueneari”, iragarri dute ohar bidez Kalezarko Belmonte auzo elkartetik. Auzotarren inaugurazio ekitaldia antolatu dute larunbatean, apirilak 20, eguerdiko 12:00etan, aipatu eraikinaren atariko plazan. Ondoren egingo den hamaiketarako partekatuzko zerbait eramateko deia egin diete hitzordura joan asmo dutenei.

Artzi
Partenizarietxea
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Bozketa egunaren atarian

Ostiral gauerdian bukatuko da hauteskunde kanpaina. Biharamuneko hausnarketa egunaren ondotik, hauteskundeak izango ditugu igandean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrietan.

Hamaika hautagai-zerrenda

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, hamaika eragile politiko hauen artean hautatu ahalko dute usurbildarrek: Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE (PSOE), PP, Elkarrekin Podemos-Alianza Verde, PUM+J, Aulki Zuriak, VOX, PACMA, IZAN eta Sumar.

Herri ordezkariak

Zerrenda horietan bada herri ordezkariarik. EHBildurenean, laugarren ordezkaria Beñat Larrañaga Urdanpilleta izango da, aurreko 2019-23

legealdian Usurbilgo Udaleko gobernu taldeko kide izandakoa.

EAJren hautagai zerrendako azkeneko bi hautagaiak, 24. eta 25. postuetakoak hain zuzen, egungo Usurbilgo udal ordezkari Xabier Otxoa Muñoz eta Ivan Iriondo Axpe izango dira.

PSE-EEren hautagaien artean, seigarren postuan da Ricardo Crespo Rubio, Usurbilen sozialisten udal taldeko bozeramaile izandako herri-kidea 2011-15 legealdian. Gerroztik, Hernaniko Udalean zinegotzia da Crespo.



Hauteslekuen irekiera, parte hartze datuen eta iluntzean plazaratuko dituzten emaitzen berri noaua.eus bidez emango dizuegu.

Aulki Zuriak ere deialdi honetara aurkeztu da. Kasu honetan, hamaikagarren postuan da Aitor Picabea Lamuedra, hamabosgarrenean Andoni Picabea Lamuedra.

8 mahai gehi bat

Guztira, zortzi mahai izango dira osatuko diren egunetan; hiru Udarregi ikastolan, bi Kalezarko Haur Eskolan, beste mahai bana Aginagako

eskolan, Santueneko auzo elkartean egoitzan edota Zubietako Lanbide Eskolan. Hauei bederatzigarrena erantsi behar Zubietan. Donostia aldean bizi diren zubietarrek botoa emateko bederatzigarren mahai hango eskolan kokatuko dute.

Botoa emateko aukera mahaiotan, igande goizeko 9:00etan hasi eta iluntzeko 20:00ak artekoa izango da.

Belmonte kalearen itxiera

Kalezarko bizilagunek helarazitako eskaera bati bide ematera doa Usurbilgo Udala. Auzoa alderik alde zeharkatzen duen kale nagusia, Belmonte kaleko zorua konpontzera doala iragarri du, Pelaiokeno obrak amaitu ostean egitea aurreikusia zuen moduan.

Honenbestez, apirilaren 22an hasiko dituzte lanok eta une horretatik aurrera, lanok amaitu artean itxi egingo dute kale hau ibilgailuentzat. "Aurreikuspenen arabera, bi aste beharko dituzte lanok amaitzeko, eta, ondoren, beste hiru aste itxita egongo da, zorua ondo finkatuta gelditu dadin", ohartarazi du Udalak.

Kontrol sistema bat

Lanok amaitu ostean gauzatu dute Kalezarko auzokideek eremu honi lotutako bigarren



Lanok amaitu artean itxi egingo dute Belmonte kalea ibilgailuentzat.

eskaera; "bertatik soilik auzotarrek pasatu ahal izatea. Zorua konpondu ostean, beraz, hori izango da hurrengo lana: kontrol sistema ezartzea".

Belmonte kalera Kaxkotik igo nahiz alderantzizko bide gisa baliatzen da haur eskola pareko aldapa. Bide hau ere konpontzera doa Udala. Iragarri duenez, "lizitazioa martxan dago. Ondo bidean, lanok maiztaren amaieran hasteko moduan egon daitezke".

Lanbide Eskolako ikastaroak

Usurbilgo Lanbide Eskolatik jakinarazi dutenez, "apiriletik aurrera hasiko dira Lanbide bidez eskaintzen diren langile eta langabetuentzako ikastaroak aurten. Aurtengo eta datorren ikasturterako ikastaro aukera ugaria aurkituko duzue ikastetxean".

Informazio gehiago jaso eta izena ikastaroak.lhusurbil.eus atarian eman ahalko da. Administrazioa eta kudeaketa, fabrikazio mekanikoa, turismoa eta ostalaritza, informatika eta komunikazioak, elektrizitatea eta elektronika, energia eta ura, instalatzea eta mantentzea eta heziketa osagarria, alor hauetan guztietan hamaika ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaintzen ari da Lanbide Eskola.

Lanbide Eskolako hezkuntza proiektua eta azpiegiturak eza-



Informazio gehiago jaso daiteke lhusurbil.eus atarian.

gutu nahi dituenarentzat "ateak zabalik" izeneko hiru jardunaldi egun antolatuta dituzte.

"Ateak zabalik"

Maiatzaren 4rako (10:00etan erdi mailako zikloak, 11:30ean goi mailakoak eta espezializazioa), 7rako (17:00etan erdi mailako zikloak) eta 8rako (17:00etan goi mailako zikloak).

Dagoeneko hitzorduotan izen-emateko epea zabalik da: lhusurbil.eus /943 36 46 00



Agurtzane Solaberrieta EH Bilduko kidearen ustez, "orain arteko politikek ez dute herritarren arazoei aurre egiteko balio izan".

"Argi dago ziklo politiko berri bat loratzen ari dela Euskal Herrian"

Igandeko hauteskunderi begira, Usurbilgo udaletxean ordezkatura dauden alderdiengana jo dugu iritzi eske. Agurtzane Solaberrieta EH Bilduko alkatearen esanetan, "azken hauteskundeetako emaitzei erreparatu, argi ikusten da badagoela aldaketarako gogo, nahia eta beharra".

Usurbilgo Udalaren interesen ikuspegitik, EAE mailako hauteskunde hauek zer nolako garrantzia dute? Badu, noski, bere garrantzia, izan ere, hauteskunde guztietan erabakitzen da nork, ze alderdik edota ze ereduk gidatuko duten instituzioak, eta batzuek edo besteek kudeatu, Usurbilgo Udalean eta, oro har, usurbildarrentzat badu bere eragina.

Azken hauteskundeetako emaitzei erreparatu, argi ikusten da ziklo politiko berri bat loratzen ari dela Euskal Herrian, eta badagoela aldaketarako gogo, nahia eta beharra. Izan ere, orain arteko politikek ez dute balio izan euskal lurraldeok parez pare dituen arazoei aurre egiteko. EAJketa PSEk agortutako eredia ordezkatzeko

dute, eta sektore publikoaren dekadentzia begibistakoa da, izan Osakidetzan, hezkuntzan edota etxebizitzaren alorrean. Ez dago anbizioz, ez dago lidergotzarik. Horregatik, inertzia alboratu eta aldaketaren agenda martxan jartzeko unea da. Eta horixe da, nire ustez, apirilaren 21eko hauteskundeetan jokoan dagoena: aldaketaren ordua izan behar du. Izan ere, Araba, Bizkai eta Gi-

"INERTZIAK ALBORATU ETA ALDAKETAREN AGENDA MARTXAN JARTZEKO UNEA IRITSI DA"

puzkoako errejenerazio politikoa ez da aukera bat; premia bat da, eta EHBilduk herri honek behar duen errejenerazio politikoa gauzatzeko lehen-tasunak eta aldaketarako agenda zehaztuak ditu. Are, XXI. mendeko politika publikoak, Europa mailan kontrastatuak eta arazo konkretuei soluzioak emateko gai diren proposamenak jasotzen ditu EH Bilduren Gobernu Programak.

"HELBURU NAGUSIETAKO BAT KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATZEA IZAN BEHAR DU"

Herritar askoren kezka-iturri nagusiak ekonomiari lotuta daude: lan-etorkizuna, langabezia, prekaritatea, ... Alor honetan, EH Bilduk zer nolako neurriak defendatuko ditu?

Langabeziari buruzko datuek lan merkatuaren eta langileen bizi baldintzen adierazle zorrotza izateari utzi zioten aspaldian. Gaur egun Jaurlaritzak balorazio autokonplazienteak egiten ditu enpleguaren datu kuantitatiboak buruz, baina datu estatistiko horiek benetako egoeraren zati bat bakarrik erakusten dute, eta kronifikatzen ari den prekaritatea ikusezin bihurtzen laguntzen dute. Gaur egun enplegu askok ez dituzte bizitza duina garatzeko behar besteko diru-sarrerak bermatzen, eta arazoa larriagotu egiten da bizitzaren garestitzea areagotzen ari den egungo testuinguruan.

Hori dela eta, ekimen publikoaren helburu nagusiak kalitatezko enplegua sustatzea izan behar du, lan baldintza justuetan oinarrituko dena, inor baztertu eta diskriminatuko ez duena, aberastasunaren banaketa zuzen eta bidezkoa ahalbidetuko duena, ingurumen inpaktua murriztuko duena eta trantsizio ekologikoaren bidean jarriko dena, gizonen eta emakumeen artean enplegua eta bizitza sostengatzeko lanak era justuan sustatuko duena.

Zentzu horretan, proposatzen diren neurriak ugariak eta askotarikoak dira, hona hemen batzuk:

- 1) Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko herri ituna, alderdi politikoen, sindikatuen, enpresa-elkarteen, kooperatibismoaren eta, oro har, ekonomia sozialeko eragileen parte hartzearekin.
- 2) Negoziazio kolektiboaren euskal esparrua defendatu, bermatu eta zabaltzea.
- 3) Enpleguaren prekarizazio estrukturalaren aurka, 1.400 euroko gutxieneko soldata.

- 4) 32 orduko lan astea soldata gutxitu gabe, enplegua eta zaintza lanak gizonen eta emakumeen artean modu justuan banatzen lagunduko duena.
- 5) Lanbide indartzea, Euskal Enplegu Zerbitzu Publiko gisa.
- 6) Soldata arrakalaren aurka-ko plan integrala.
- 7) Etxeko langileen enplegua duintzeko konpromisoa.

Osakidetzaren oraina eta geroa ere badira herritarren interesa pizten dutena. EH Bilduk diseinatu duen proposamena laburbilduko diguzu?

Osakidetza arazo nagusi bat bilakatu da. Jaurlaritzak otsailan publikatutako 82. Sozio-metroak hala baieztatzen du: osasungintza bigarren kezka nagusia da. Datuak datu, Osakidetzan gertatzen ari den gainbehera eztabaida ezina da, paradigmaticoa da, kudeaketa eredu baten agorpen froga nagusia. Lehen arreta, itxaron zerrendak, pribatizazioak... zentzu asko daude, gehiegi, norabide aldaketa eskatzen dutenak. Pandemiak egoera horretan eragina izan arren, horrek ez du azaltzen egungo narriadura, egungo atsekabea. Osakidetzan dauden arazoak aspalditik datoz, azken urte luzeetan egindako kudeaketa txarraren ondorioz. Nabarmena izan da planifikazio eza, etorkizunari aurre-hartzeko ezintasuna, kontratazio politika okerra edo gobernantza eredu bertikala.

Hala, egoerarekin kezkatuta, EHBilduk Osakidetza zutik jartzeko proposamen integrala osatu du: osasun sistema publikorako gobernu programa propioa osatu du, luzea eta sakona, une honetan dauden arazo eta erronkei erantzun egokiak eskaintzen diena. Hauxe lotura: ehbildu.eus/dokumentuak/albisteak/EU_1710941486.pdf

Lau zutabe nagusitan laburbildu daiteke proposamena:

1) Gobernantza berri baten beharra, orain arteko eredu



Pello Otxandiano, EH Bilduren lehendakariagaia. ARGAZKIA: EHBILDU.

zentralista eta bertikala atzean utzi eta langileekin batera konponbidea eraikitzeko. Hala, Osakidetzan parte hartzeko hainbat formula abian jarriko dira, orain ez dagoelako herritarren ikuspegia txertatzeko biderik eta tresnarik; eta, bestetik, maila komunitarioan lan egiteko egiturak eratuko dira, tokiko mugimenduak eta herritarrak, lehen arreta, udaleko zerbitzuak eta foru aldundiak elkarlanean aritzea ahalbidetzeko.

2) Pertsonal politika berria, behin-behinekotasuna asko jaisteko eta lan baldintza duinak bermatzeko. Izan ere, indarrean dagoen pertsonal politika da Osakidetzaren gainbeheraren kausa nagusia. Azken hamarkadetan behin-behinekotasuna sustatu da eta prekarizazio horren ondorio dira profesionalen desmotibazioa eta arretaren kalitatea galtzea. Horregatik,

"ASPALDITIK HONA, OSAKIDETZAN NABARMENA IZAN DA PLANIFIKAZIO EZA ETA KONTRATAZIO POLITIKA OKERRA"

ezinbestekoa da Osakidetzako kontratazio eredu aldetzea, lanpostu egonkor, luze eta erakargarriak eskaini ahal izateko. Halaber, lan eskaintza publiko aldatzeko ekimena hartuko du EHBilduk, azterketa bakarra egitea proposatuz. 3) Lehen Arreta indartzea. Sistemaren oinarri da, eta egun sistemak huts egiten du oinarritik bertatik. Hala, Lehen Arreta indartzeko neurri sorta eta politika asko jasotzen dira proposamenean, besteak beste, aurrekontua handitzea, ratioak ezartzea eta plantilla %10 handitzea.

4) Osasun publikoaren adiera zabalago bat sustatzea, osasun mentala ere jasoko duena eta ikuspegi soziosanitarioa ere barnebilduko duena.

Herri honen ambizio nazionala nabaritu behar da datozen urteetan, osasun sistema publiko bat martxan jartzeko orduan. Guk uste dugu

"LEHEN ARRETA INDARTZEKO NEURRI SORTA ETA POLITIKA ASKO JASOTZEN DIRA GURE PROPOSAMENEAN"

posible dela, horretarako gaitasuna badagoela. Baina behar da politika zuzen bat eta gobernantza egoki bat. EH Bilduk konpromiso osoa dauka horretarako eta datozen urteetan buru-belarri jarriko gara horretan.

"Pello Otxandiano lehendakariak proposamen ausartak egiteko ambizioa du"

Pello Otxandiano Kanpo hautagaia gertutik ezagutzen duzu. Lehendakariagaiaren zein ezaugarri nabarmenduko zenituzke?

Bai, ezagutzen dut, eta nabarmenduko nituzkeen ezaugarriak dira gaitasuna, begirada eta pasioa. Pellok belaunaldi berri bat ordezkatzeko, eta egoeren gaineko autokonplazentziarik gabeko analisi zuzenak eta zorrotzak egiteko duen gaitasunak liluratzen nau, eta, gainera, egoerak eraldatzeko proposamen zehatzak eta ausartak egiteko ambizioa du. Nik uste Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan aldaketa politikoa eskatzen dugun guztiok ordezkatzeko lehendakariagaia dela, eta, gainera, eskarmentu handiko lantaldea eta komunitatea du inguruan. Izan ere, EHBidu horixe baita: komunitate eder bat, erronkei aurrez aurre begiratu eta tamainan erantzuteko gaitasuna erakusten ari dena.



Xabier Otxoa EAJko zinegotziaren esanetan, sektore guztietan "aurrepausoak eta hobekuntzak lortzeko garrantzia handia dute hauteskunde hauek".

"Aurrean ditugun erronkei oinarritik helduko diegu"

Xabier Otxoa Usurbilgo udal zinegotzi jeltzaleak aditzera eman digunez, "Imanol Pradales EAJk behar zuen indar berriaren testigua eramateko hautagai bikaina da".

Usurbilgo Udalaren interesen ikuspegitik, EAE mailako hauteskunde hauek zer nolako garrantzia dute?

Usurbilgo Udalaren interesentzat baina bereziki Usurbilgo herritarrentzat berebiziko garrantzia dute EAEko hauteskundeek. Imanoletabere taldeak indar berriarekin bat, egiteko modu berriak eta elkarlanerako prestutasuna dugu. Usurbilgo herritarrentzat lehen sektorean, trantsizio ekosozialean, trantsizio energetikoan, industriaren bultzadan, lanpostuen sorreran, mugikortasun jasangarrian, zaintzan, osasungintzan, gazteen lehen lan esperientzian, lan baldintza duinetan, hezkuntza publikoan, haur eskolen doakotasunean eta beste hainbat gaietan aurrerapauso eta hobekuntzak lortze-

ko garrantzia handia dute hauteskunde hauek.

Herritar askoren kezka-iturri nagusiak ekonomiari lotuta daude. Alor honetan, EAJk zer nolako neurriak defendatuko ditu?

Lan etorkizuna, langabezia eta prekaritateari buruz, esan beharra daukat azken hamarkadan hobekuntza nabarmena eman

"GAZTEEN ENPLEGUA BABESTEN JARRAITUKO DUGU, LEHENBIZIKO LAN-ESPERIENTZIA LORTZEKO"

dela, datuak onak diren edo ez, erlatiboa da. Beste herrialde batzuekin konparatzen baditugu oso onak direla esan daiteke, dena den, guretzat ez da nahikoa eta horiek hobetzeko EAJtik neurri hauek proposatzen dira:

Prestakuntza sustatuko dugu eta horretarako sarbidea erraztuko dugu, eta, aldi berean, teleprestakuntza- eta autoprestakuntza-modalitateak indartuko ditugu, pertsona guztiek jaso ahal izan dezaten trebakuntza, nonahi bizi direla eta edozer ordutegi dituztela ere.

Orientazio eta laguntza pertsonalizatua errealitate bihurtuko dugu. Gure helburua da lanik gabe geratzen den pertsona orok izatea laguntza-zerbitzu pertsonalizatua, langabezian gelditu eta gehienez ere 2 asteko epean.

Gazteen enplegua babesten jarraituko dugu, lehenbiziko lan-esperientzia lortzeko. Aldi berean, enpresetako praktika-programak kontrolatuko ditugu, tresna horren abusu-egoerak saihesteko.

Laguntza eta babes espezifiko eskainiko diegu enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak. Lanbidek arreta berezia eskainiko dio 55 urtetik gorako pertsonen kolektiboari, askotan diskriminatutik geratzen baitira "lan-adinkeriaren" ondorioz.

Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arteko lankidetzak guneak sortuko ditugu, prestakuntza-ibilbide integratuak, malguak eta produkzio-sarearen beharretatik hurbilekoak sustatzeko.

Zorrotz jarraituko dugu laneako araudia betetzen dela, batez

ere laneako segurtasunari eta osasunari buruzkoa.

Birziklatzeko eta birkualifikatzeko programak garatuko ditugu.

Hauek izan daitezke programaren proposamen batzuk laburtuta, baina programan askoz neurri gehiago eta sakonago azaltzen dira, horregatik nire gonbitea egiten diot irakurleari programari begirada bat eman diezaion, bai lanaren eta ekonomiaren arloan baita hurrengo gaiarekin, Osakidetza-rekin, lotutako arloarekin ere.

Osakidetza ere herritarren interesa pizten du. EAJk diseinatu duen proposamena laburbilduko al diguzu?

Osakidetzan pandemiak gogor jo zuen eta oraindik errekupe-ratio fasean gaude, nahiz eta datuak dezentzera hobetu diren 2021etik hona, aitortu beharra daukat nahi baino motelago eman dela, baina ratioak hobertantz egin dutela ukazina da. EAJtik uko egiten diogu Osakidetzaren ustezko pribatizazioaren gaineko diskurtso interesatua onartzeari. Lehenik eta behin, interes politiko argi bat ezkututzen duen gezur biribila delako. Osakidetzak inoiz baino langile gehiago, finantzaketa handiagoa eta egitura publiko sendoagoa ditu.

Edozein kasutan, apaltasun osoz, gure lehendakari gaiak Osakidetzak dituen ahulguneak identifikatu eta horiei konponbidea bilatzeko lanean aritu da azken hilabete hauetan, espezialitate eta sail bakoitzeko langile eta arduradunekin elkartuz eta dituzten arazoak entzunez, Imanolentzat eta EAJrentzat Osakidetzan egun dauden arazoei konponbidea ematea baita lehentasuna eta horren adierazle da, programaren lehen puntuan dago Osakidetzak aurkitzea.

Esan bezala, EAJtik onartzen dugu beharrezkoa dela zenbait alderdi hobetzea, hala nola itxaron-zerrendak murriztea arreta espezializatuko kontsultetan, proba diagnostikoetan

"GURE HELBURUA DA LANIK GABE GERATZEN DEN PERTSONA OROK IZATEA LAGUNTZA-ZERBITZU PERTSONALIZATUA"

eta ebakuntza kirurgikoetan, eta arindu egin beharko dugu, orobat, lehen mailako arretako lan-karga, baina beti konbenzimentu batetik abiatuz: abiapuntua oso ona dela sineztsita, eta ez beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta bakarrik, baita mundu mailan erreferentzia diren osasun-sistemen ondoan ere.

Imanolen lidergoaren baitan Osakidetzaentzat proposatutako neurriak laburbiltzen saiatuko naiz, dena den, apirilaren 21a baino lehenago herritar guztiei programa osoari begirada sakon bat ematea gomen datzen diet, botoaren aukeraketa, zaratotsetatik aldentuta errealitatera gerturatzeko. Aipatu beharra daukat, galdetegi honi erantzuten ari naizen momentu honetan EAJren programa web orrian aurkitu daiteke oso erraz, EH Bildurena aldiz, ez dut aurkitu...

Epe laburrean egiteko gure proposamen nagusienak hauek dira:

Familia-medikuak gehienez ere 48 orduko epean artatuko du edozein pertsona, eta itxarondaki kirurgikoetako zerrendak 2 hilabetetik behera murriztuko ditugu, batez beste 50 eguneko helburura hurbilduz.

Behar eta nahi dugun osasun-sistemari buruzko Euskal Akordioa sustatuko dugu, gizar-te-eragileek eskatzen duten bultzada berritzailea emanez. Ezinbestekoa da oinarritzko elkarriketa eta akordioa ezartzen osasun-sistema osatzen duten eragileen artean: Eusko Jaur-larritza, Foru Aldundiak eta Udalak, eragile politikoak eta sozialak, elkargo eta elkarte profesionalak, unibertsitateak, pazienteen elkar-teak, farmaziak...

Prebentzioaren arlora bideratuko ditugu inbertsio gehienak eta osasun mentala eta emozionala lehenetsiko ditugu, adin guztientzat zuzenduta, baina gazteei berebiziko garrantzia emanez.

Konpromisoa hartzen dugu gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen tratamenduan eta



Imanol Pradales, EAJ-PNVren lehendakaria. ARGAZKIA: EAJ-PNV.

zaintzan espezializatutako arreta medikoko erakunde bat sortzeko.

Suizidioaren arloko laguntza psikosozialeko unitate bat sortuko dugu, suizidio-biktimaren ingurunea artatuko duena eta laguntza espezifikoa eskainiko diona.

Lehen mailako laguntzako profesionalen kokapen geografiko berean jarraitzea sustatuko dugu, eta, era berean, ordain-sariak handituko, lan-malgutasuna areagotuko eta lan-gain-karga murriztuko dugu.

Etengabeko Arreta Guneen (EAG) mapa berrikusiko dugu, gehiago behar ote diren balioesteko edo lehendik dauden osasun-profesional eta mediku iraunkor gehiago behar ote diren balioesteko.

Epe ertainera begira aldiz hurrengo hauek proposatzen ditugu:

Inbertsio-plan bat egiteko konpromisoa hartzen dugu, xede gisa harturik ekipamen-

duak berritzea, lehen mailako arretako azpiegiturak modernizatzea eta azpiegitura estrategiko berrietan inbertitzea. Horretarako, 250 milioi euro bideratuko ditugu egungo azpiegiturretan eta ekipamenduetan mantentze- eta egokitze-lanak egiteko, eta beste 1.000 milioi euro ekipamenduak berritzeko eta azpiegitura estrategiko berriak eraikitzeko.

Osasun-administrariaren figura ezartzea. Osasun-administrariaren figura berria sortuko dugu lehen mailako arretan. Profil berri horrek lehen iragazki gisa funtzionatuko du, pazienteak lehen mailako arretako erizainarengana, lehen mailako arretako medikuarengana edo kontsulta telematikoko batera bideratzeko.

Aldizkako lan-eskaintza publikoak egingo ditugu, gure osasun-sistemaren bikaintasunerako ezinbestekoak diren plantillen egonkortasuna eta nahikotasuna bermatzeko.

"FAMILIA-MEDIKUAK GEHIENEZ ERE 48 ORDUKO EPEAN ARTATUKO DU EDOZEIN PERTSONA"

"BEHAR ETA NAHI DUGUN OSASUN-SISTEMARI BURUZKO EUSKAL AKORDIOA SUSTATUKO DUGU"

UPV/EHUko Medikuntza Fakultateko plazak ugarituko ditugu. Eskumenik ez dugun bitartean, gogotik eskatuko diogu Espainiako Gobernuari barneko mediku egoiliarren (BAME) plazak areagotzeko, plaza horiek euskal osasun-sistemaren beharrei erantzun diezaieten.

Etxeko ospitaleratze-programa bat sortuko dugu, pazienteei aukera emango dena ospitalean jasoko lituzketen antzeko zainketa eta tratamendu medikoak jasotzeko, etxean jarraitzeak ematen duen erosotasunarekin.

"Imanol Pradales apala da, baina anbizio handikoa"

Imanol Pradales hautagaia gertutik ezagutzen duzu. Lehendakariaren zein ezaugarri nabarmenduko zenituzke?

Imanol orain urte batzuk ezagutu nuen eta egia esan EAJk behar zuen indar berriaren testigua eramateko hautagai bikaina dela uste dut. Ideia eta egiteko modu berriak, humanista, apala baina anbizio handikoa, elkarlanerako gaitasuna eta presiopean erabakiak hartzeko ausardia duen euskaldun bat dela erakutsi dit ezagutzen dudantetik. Ez daukat inongo zalantzarik aurrean ditugun erroken oinarritik heldu eta irtenbide jasangarriak, hau da, denboran iraungo dutenak eta gure egoera sozioekonomikoak ahalbidetu ditzakeenak, aurrera eramango dituela.



Petri Romero PSE-EEko zinegotziaren esanetan, "gure lehentasunek usurbildarren egunerokotasuna hobetuko dute".

"Jendearen bizitza hobetzen duten politiketan jartzen dugu arreta"

Petri Romero Usurbilgo zinegotzi sozialistak aditzera eman digunez, hauteskunde hauek berebiziko garrantzia dute. "Uste dut sozialistak garelako jendearen benetako arazoetan pentsatzen dugun bakarrak".

Usurbilgo Udalaren interesen ikuspegitik, zer nolako garrantzia dute EAE mailako hauteskunde hauek?

Usurbilgo Udalaren interesen ikuspegitik, zer nolako garrantzia dute EAE mailako hauteskunde hauek? Usurbilgo Udalaren interesen ikuspegitik, zer nolako garrantzia dute EAE mailako hauteskunde hauek? Usurbilgo Udalaren interesen ikuspegitik, zer nolako garrantzia dute EAE mailako hauteskunde hauek?

Alderdi Sozialistatik jendearen bizitza hobetzen duten politiketan jartzen dugu arreta.

Gure lehentasunek, gure programak jasotzen duen bezala, usurbildarren egunerokotasuna hobetuko dute. Etxebizitza eskuratzeko erraztasuna ematen du-

ten etxebizitza-politika auzart eta berritzaileez eta enpleguaren kalitatea hobetzeko politikaz ari gara (hemen ezin dut ahaztu usurbildar askok onura ateratzen diotela sozialistek EH Bilduren eta EAJren kontrako botoarekin onartu genuen lan-erreformari). Baina, gainera, zaintzen duena ere kontuan hartuko duen zain-

"EZTABAIDA SUBIRANISTEN AURREAN, GU GIZARTEAREN BENETAKO ARAZOEZ ARDURATZEN GARA"

keta-politika berriaz ari gara, Osakidetzan gehiago itxaron ezin duen hobekuntzaz. Politika feministak gobernuaren erabaki guztietan nagusi izatera itzuli nahi ditugu, eta beste neurri zehatz askorekin jarrai nezake. Jakina, hauteskunde hauek garrantzia handikoak direla Usurbilgo Udalaren, eskubideak zabaltzea eta hobetzea dugu

"ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO ERRAZTASUNAK EMANGO DITUEN PLAN BAT SUSTATUKO DUGU"

jokoan, edo usurbildarren bizitza hobetuko ez zuten eztabaidetan gelditzea.

Herritar askoren kezka-iturri nagusiak ekonomiari lotuta daude: langabezia, prekaritate, lan-etorkizuna... Alor honetan, PSE-EEK zer nolako neurriak defendatuko ditu?

Eta kezka horiek ez naute harritzen, ez baita gutxiagorako. Nahiz eta beste indar politiko batzuek beste gai batzuekin nahastu nahi dituzten, gai horiek gaindituta daudelako edo herritarrei begira ez dituztelako une honetan hain lehentasunez jartzen.

Uste dut sozialistak garelako jendearen benetako arazoetan pentsatzen dugun bakarrak. Eta nabaritzen ari da hauteskunde autonomikoaren kanpaina honetan. Alderdi abertzaleetako hautagaiak, beti bezala, eztabaida subiranistara itzultzen diren bitartean, abertzaleagoa nor den ikusteko borrokan, gu euskal gizartearen benetako arazoez ari gara.

Uste dut Eneko gure hautagaia oso argi uzten ari dela kanpaina honetan egiten ari den hitzaldi guztietan. Baina batzuk nabarmendu behar badira, nik Osakidetzan 2.000 plaza berri sortzearen alde egingo nuke, edo Gizakidetzan, Euskadiko zainketa-eredua berrikusteko gure proiektua, aurkeztearen alde, ziur asko, gaur egun Euskadin mahai gainean dauden proposamenik eraldatzailena eta etorkizunekoena baita. 26 urte arteko gazteentzat, langabetuentzat eta Gizarte Bonuaren onuradunentzat, doako txartelak ahaztu gabe, Euskadiko garraio publiko osoan, familia-errentaren arabera. Era berean, alokairuko etxebizitza babestuaren %50, 35 urtetik beherakoentzat izango dela esan dugu, eta Euskadin jarduten duten finantza-erakundeei (batez

ere euskal kapitala dutenei beren praktikak ekonomia-
ren deskarbonizazioa bul-
tatzeko egokitzeko eskatu
diegu. Bereziki, Kutxabank
eta Laboral Kutxa finan-
tza-sistemaren eraldaketa
berdearen aitzindari izatea
nahi dugu, deskarboniza-
zioaren eta ekonomia ber-
dearen aldeko apustua egi-
ten duten enpresa-proiektuei
kreditua lortzea erraztuz.
Eta gauza bat oso garrantzi-
tsua iruditzen zait: Emakun-
de Lehendakartzara itzul-
tzea, mugimendu feministak
eskaten digun bezala, ber-
dintasun-politikak Eusko
Jaurlaritzaren erdigunean
egon daitezen.

Osakidetzaren oraina eta geroa ere badira herritar askoren interesa pizten dutena. Osasun arloan, zeintzuk izango dira PSE-EEK defendatuko dituen ildo nagusiak?

Egia esan, ez nau harritzen
kezka horrek. Pandemiak
Osasun Publikoaren Sistema
suntsiezin baten josturak
erakutsi dizkigu. Guk, so-
zialistok, nahi dugu Osaki-
detzak bermatzea euskal
osasun publikoak urte haue-
tako ibilbide autonomikoan
izan dituen kalitate-estandar
altuak, eta, horretarako,
lehenik eta behin, pande-
miaren aurreko asisten-
tzia-normaltasuna berres-
kuratu behar da (aurrez
aurreko arreta atzerapenik
gabe berreskuratuz eta eten-
dako edo aldatutako zerbi-
tzuak berrezarriz).

Guztiok ezagutzen ditugu
herritarren kexa asko, osa-
sun-zentroak ixteagatik,
medikurik gabeko larrial-
diagatik, erizain baten



Eneko Andueza, PSE-EEren lehendakaria. ARGAZKIA: PSE-EE.

arretarekin bakarrik, itxa-
ron-zerrendekin edo zentro
berriak eraikitzeke prome-
sekin, hala nola Irungoa, eta
abar. Gure osasun-sistema-
ren prestigioa eta herritarren
konfiantza txikitzen doazen
gauzak.

Proposamen berri gisa,
Osakidetzako plantilla es-
tukturala 2.000 plazatan
handitzea azpimarratu nahi
nuke, gaur egun aldi bate-
rako profesionalak betetzen
dituzten premia estuktura-
ralei ez ezik, Osakidetzari
osasun publikoan errefer-
rentea izateko aukera eman-

**"OSAKIDETZAKO
PLANTILLA 2.000
PLAZEKIN
HANDITZEA
PROPOSATZEN
DUGU"**

go dioten programa eta
proiektu estrategiko berriei
ere erantzuteko. 2.000 lan-
gile, dagoen defizita ez ezik,
zerbitzuak hobetzeko, itxa-
ron-zerrendak murrizteko,
lehen mailako arreta hobe-
tzeko eta osasun mentalean
arreta jartzeko, psikologo
kliniko gehiago sartuz. Hori
guztia, euskal herritarrek
merzei dutenaren mailako
osasun-sistema lortzeko.

Agian oso ausarta naiz
esaten sozialistak bakarrik
izango direla gai Osakidetz-
a inoiz irten behar ez zuen
bikaintasun-postuetara

**"HERRITARREK
MEREZI DUTEN
OSASUN-SISTEMA
LORTZEKO
BALIABIDEAK
JARRIKO DITUGU"**

itzultzeko, baina gogorara-
zi nahi dut gobernu sozia-
lista batekin lortu zuela
euskal osasun-sistemak bere
punturik gorena lortzea,
Patxi Lopez lehendakaria
buru zela. Patxi Lopez
gobernuarekin, Rafael Ben-
goa sailburu zela.

**"Eneko
Andueza
leiala, alaia eta
familiarra da"**

**Eneko Andueza hauta-
gai sozialista gertutik
ezagutzen duzu. Labur
bada ere, zein ezauga-
rri nabarmenduko ze-
nituzke?**

Eneko aspalditik eza-
gutzen dut. Esan de-
zaket alderdikidea
izateaz gain laguna
ere badela. Oso leia-
la, alaia eta familiarra
den lagun bat.

Eneko, batez ere,
bere idealekiko oso
leiala da, langilea eta
oso sutua, egia esan,
bidezkotzat jotzen
duenaren defentsan.
Ikusteko aukera izan
dut, Batzar Nagusie-
tan lankide izan gara
eta asko ikasi nuen.
Uste dut lehendaka-
ri bikaina izan daite-
keela guretzat, egiten
duen guztia pertso-
nen bizitza hobetze-
ko konbentzimendu-
arekin egiten bai-
tu, eta hemendik
munduko zorte guz-
tia opa diot.

HAUTESKUNDEEN INGURUKO ARTIKULUAK, BIDEOAK, EMAITZAK... SAREAN ERE IKUSGAI!



ARTIKULUAK

noaua.eus/bereziak/apirilak-21



BIDEOAK

youtube.com/noauatb



EMAITZAK

noaua.eus/bereziak/apirilak-21





Larunbatean, Dantzari Txiki Eguna. "Gure txikien kasuan, sagar dantza, makil txiki, axuribeltza... halakoak dantzatuko dituzte", jakinarazi digute Orbeldiko lagunek.

Badatoz Dantzari Txiki eta Dantza Egunak

Urtero legez, Orbeldi Dantza taldekoak udaberrirako proposatu ohi dituzten Dantzari Txiki eta Dantza Egunak badatoz. Lehenik, V. Dantzari Txiki Eguna izango dugu larunbat honetan, eta datorren larunbatean, berriz, XII. Dantza Eguna.

Dantzari Txiki Egunean, gonbidatu ugari hartu ditu Usurbilek dantzari gazteen egunean. Aurtengoan, Orbeldikoek Errenteriako Ereintza, Zarauzko Jalgi, eta Getariako Dantza taldeko txikiak gonbidatu dituzte egun berezi horretan. Hiru talde gonbidatuek eta Orbeldiko txikiak kalejira osatuko dute goizeko 11:30ean hasita Udaletxetik barna eta 13:00erako aurreikusitako emanaldia frontoian. "Ohiko euskal dantza tradizionalak ikusteko aukera izango da bi kalejiratan, ume asko dira eta. Gure txikien kasuan, sagar dantza, makil txiki, axuribeltza... halakoak dantzatuko dituzte", jakinarazi dute Orbeldiko lagunek.

Horrenbeste ordu dantzan pasa ostean, 14:00etan dantzarien bazkaria egingo dute,

eta eguna borobiltzeko, 16:30ean Elizagaien Ahizpekin erromeria ederrarekin biribilduko dute eguna.

Dantza eguna datorren larunbatean

Datorrean astean, berriz, helduen txanda izango da. Goizean, jada tradizio duten Tranpaldo irekiarekin hasiko dute eguna Olanoeneako plazan. Edonork parte har dezake ekitaldi horretan eta izen-ematea irekita egongo da hilaren 20 arte, Dantzari Txiki Egun arte. "Dantzari Txiki Egunean postua jarriko dugu frontoi inguruan izena eman nahi dutenek aukera izan dezaten edota informazioa behar duen oro gurekin zuzenean harremanetan jartzeko. Gure korreoa (orbeldi.udt@gmail.com) edota sare sozia-

letara idatzita ere izena emateko aukera izango da", esan dute dantza taldekoek.

Ondoren, 14:00etan Kantu bazkaria izango da Askatasuna plazan eta edonork izango du aukera izena emateko. Interesa duen orok Artzabalen izango du izena emateko aukera hilaren 20 bitarte. Kantu taldekoek girotuko dute bazkaria, eta ohi ez bezala Askatasunan egitea erabaki dute ekitaldi hau ere herrira

"ARRATSALDEKO KALEJIRAN EUSKAL PLAZA GIROA EKARRI NAHI DUGU HERRIRA"

ekarri eta herritarrak animatzeko.

Arratsaldean, dantza kalejirari helduko diote. Trikitilariak bideratuko dute kalejira eta edonork parte hartzeko aukera izango du, euskal dantzak egiteko aukera bikaina izango da erromeriak falta botatzen dituen edonorentzat. "Goizean tranpaldoarekin dantza mota ezberdinei egiten diegu tartea, eta arratsaldeko kalejiran euskal dantzak jartzen ditugu erdigunean. Euskal plaza giroa ekarri nahi dugu herrira", diote Orbeldikoek. 18:30etan hasita Bamboo Dance erakustaldia izango da Olanoeneako plazan. Donostiako talde bat dira dantza estilo urbanoagoak egiten dituztenak.

'Borobil', aurtengo ikuskizuna Amaitzeko, ohi bezala, Orbeldikoek ikuskizuna eskainiko dute frontoian gaueko 22:00etan hasita, eta koreografia ugari ikusteko aukera izango da. 'Borobil' du izena aurtengo ikuskizunak eta Zirriborro tailerrekoek presatutako atrezzo lan ikusgarria izango du lagun. Ekitaldi hori amaitzean, Bide Batez taldearen erromeriarekin agurtuko dute aurtengo Dantza Eguna.



Inauguratu zenetik hona, jende ugari izan da Sutegin. Bertan topatuko duzue 'Zumetaren Usurbil' erakusketa.

"Geure herri-iruditeria arnasten da erakusketa honetan"

"Zumetaren Usurbil" erakusketa ireki zuten aurreko ostiralean Sutegin. Hilaren 28ra arte egongo da zabalik.

Zumetaren eta bere sorterriarren Usurbilen arteko hartue-man artistikoa biltzen du, aurreko ostiralean Sutegin zabaldu zuten erakusketak. "Usurbildarrentzat oso berezia den eta izango den erakusketa batetaz ari gara", alkate Agurtzane Solaberrietak irerikiera ekitaldian zioenez, "izan ere, Zumeta eta Usurbilen artean izan den lotura artistikoko hori erakutsiko digulako erakusketa honek". Horregatik, bere esanetan, "Usurbilrentzat eta usurbildarrentzat ohore eta luxu handia da, Zumetaren artelanez osatutako Zumetaren Usurbil erakusketa gozatzeko aukera izatea".

Gogorarazi zuenez, "artista-
ren ibilbide osoa hartzen du hautaketak, 1960tik 2018ra, eta era guztietako obra ezberdinak: erretratuak, txoriak, Usurbilrentzako egindako kartelak, papiroak...". Laburbilduz, nabarmendu nahi izan zuenez, "geure herri-iruditeria, izaera arnasten da erakusketa honetan, geu garena hain justu". Erakusketa hau osatzeko eginitiko lanagatik eskertu nahi

izan zuten Usoa Zumeta, ekimen honek azken urtebeteko zikloa borobiltzen duela gogora ekartzearekin batera.

Zikloaren itxiera

Izan ere, "dakizuenez 2023a ospakizun urtea izan da, iaz bete baitziren 50 urte Jose Luis Zumeta frontoi atzeko mural Usurbilgo Udalakeskatuta egin zuten artelan hori Zumetak 1973-74 artean eta urtemuga hau borobiltzeko erakusketa berezia antolatu dugu, Usurbil eta Zumetaren artean izan den lotura artistikoa islatzen duen erakusketa hain zuzen ere".

Usoa Zumeta: "Erakusketa hau kontentzio lan bat izan da"

Hainbat erakusketa inaugurazio izanda Sutegiko irekie-

IBILBIDE LUZEA ISLATZEN DU ERAKUSKETAK: 1960KOA DA LEHEN OBRA ETA 2018KOA AZKENA

rara joan izanagatik bertaraturikoei eskerrak eman zizkien Usoa Zumetak. Bere esanetan, ez du argi zein izan zen erakusketa honen abiapuntua. "Erakusketa honek nolabait ixten du ziklo hau, iaz hasitako erakusketa hori osatzen du baina berez ez dakit lehenengo izan zen Usurbil ardatz izanda erakusketa bat antolatzea edo aitaren obra figuratiboa fokoan jartzeko helburua ote zen lehenengo. Ez dakit zer izan zen lehenengo".

Argi duena da, "erakusketa hau kontentzio lana izan dela. Azkenean, ibilbidea luzea da, 1960an hasten da lehenengo obra eta 2018an amaitzen da, tarte hori jasotzen du". Bere esanetan, "obra bakoitzak emango zuten aukera izateko beste erakusketa bat eta hari-mutur bakoitzetik tirako bagenu, materiala egongo litzateke egiteko beste erakusketa bat. Momentuz, hau dugu, gozatzeko, Zumetaren Usurbil". Erroka handia izan dela nabarmenduta, laguntza eta babesa eskaini duten guztiak eskertu nahi izan zituen; bereziki "Usurbilgo Udala, eskainitako babesagatik, baita ere obrak utzi dituztenei".

Zumetaren Usurbil

Apirilaren 28ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.

- Astelehenera: 17:00-20:00.
- Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
- Larunbata eta igandeak: 11:30-14:00 eta 17:00-20:00.

Sutegi udal liburutegiko hitzorduak

Sutegi udal liburutegitik iragarri dituzten hurrengo deialdien berri duzue segidan:

Apirilak 23, asteartea

19:00 Xabier Mendi-gurenen *Oso latza izan da* (Elkar) kronika liburu literarioari buruzko solasaldia egilearekin berarekin. Oharra: liburuak eskuragarri Sutegin.

Apirilak 30, asteartea

18:00 Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren *Gutunak birramonari* (Denonartean) liburuaren aurkezpen-tailerra 8-10 urte arteko haurrentzat eta haien gurasoentzat.

Proposamena

Aipatu ekitaldiez gain, Irati Goikoe-txearen *Nor* (1545 argitaletxea) liburu mintzagai izango duen solasaldia antolatu nahi dute 12-14 urte arteko gazteentzat, Yolanda Arrieta bidelagun izango duena. Gazteokin adostu nahi dute eguna eta ordua. "Beraz, solasaldian parte hartu nahi duena, etor bedi Sutegi Liburutegira, eta bertan emango diogu argibide gehiago", egin dute gonbita Sutegitik.

Izen-ematea:

Sutegi udal liburutegian. Oharra: plaza mugatuak.

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.



USURBILGO HAUR ESKOLA



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2022, 2023 eta 2024 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta

• **ATE IREKIEN EGUNA:**
Apirilaren 22an, astelehena 17:30etan
(itzulpena behar duenari Telegram-en bidez emango zaio).

• **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 22tik maiatzaren 3ra
(08:30-12:30 etara Haur Eskolan).

INFORMAZIOA ETA HITZORDUA: 943-374061 telefonoan
08:30-12:30etara
edo haurreskola@udarregi.eus helbidean.

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu



NOAUA!k publizitate arduraduna behar du

Eskatzen dena:

- Kazetaritza, publizitate, ikus-entzunezko komunikazio edo marketin arloko ikasketak.
- Diseinu lanak egiteko ahalmena: InDesign, Adobe Photoshop, Canva...
 - Harremanetarako dohainak.
- Publizitate kanpainak definitu eta diseinatzeko gaitasuna.
 - Euskararen goi mailako ezagutza.

Kontuan izango dira:

- E-posta marketin-erako ezagutzak: MailChimp edo antzerako softwareak
 - Gidabaimena izatea
- Berehala lanean hasteko prestutasuna.

Eskaintzen dena:

Urtebeteko lan-kontratua, jardun erdikoa, epea luzatzeko aukerarekin.

Bidali curriculumua elkartea@noaua.eus helbidera, apirilaren 26a baino lehen, "Publizitate arduraduna" erreferentzia adieraziz.



Gipuzkoako Batzar Nagusietan martxoaren 20an eginiko osoko bilkura.

Zubietako libxibiatuez argibide eske, Batzar Nagusietan

Zubietatik hondakinen tratamenduen eremutik Artaxoako konpostatze plantara bidalitako libxibiatuek zeresana ematen jarraitzen dute. Martxoaren 20ko osoko bilkuran argibideak eskatu zizkion EHBilduk Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatu eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko lehendakariari.

GHK-k Nafarroara bidalitako libxibiatuen gaian zer erantzukizun maila duen, hondakinon karakterizazioa eskatzen ote duen Eusko Jaurlaritzak edota GHK-k zein neurri zuzentzaile hartu dituen galdetu zion EHBilduren bozeramaile Luix Barinagarrementeriari Jose Ignacio Asensiori. Itaukok Nafarroako gobernuako ingurumen kontseilariak urte amaieran esandakoen haritik zetozela oroitarazi zuen. Hondakinak gaizki kodetuta eta ustez irregularki, adostutakoa baino hondakin tona gehiago bidaltzen ari zirela zabaldu

zen urte amaieran. Artaxoako konpostatze planta ixtera heldu zen Nafarroako gobernuak. Egoera honen aurrean, EHBilduko bozeramaileak zioenez, "egoera zalapartasua izan da. Gobernatzen ari diren erakunde senidetu biren arteko kontraesan publiko nahiko nabarmena izan da. Horregatik, uste dugu, puntu hau argitzea garrantzitsua izango litzatekeela".

"Ez dugu inolako zerikusirik" Nafarroako gobernuako kontseilariaren adierazpenek sortutako "nahaste hau argitzea

espero dut", erantzun zuen Asensio. Ikertzeko "ezer ez dagoela" ziurtatu zuen, "gure aldetik behintzat ez". Are gehiago, foru diputatuaren esanetan, "ez dugu inolako zerikusirik ez Ecoferten (Artaxoako plan-

"ERAKUNDE SENIDETU BIREN ARTEKO KONTRAESAN NABARMENA IZAN DA"

aren) itxierarekin ezta libxibiatuen tratamenduan ustez izandako irregulartasunekin". Bere hitzetan, Zubietan biolehortzea bideratzen duen tratamendu plantatik "bidalitako hondakinak zuzen kudeatu eta kodetu ziren", Europako zuzentarauak errespetatuta eta gai honetan eskumena dutenei "behar bezala eta garaiz jakinaraziz". Horrez gain, zioenez, "Nafarroako Gobernuak ez da harremanetan jarri GHKrekin gai honekin zerikusia duen ezertarako". Zubietatik Bizkaiara ere libxibiatuak bidaltzen dituztela berri eman zuen. Aldiz, "han, zergatik ez dago inolako arazorik, libxibiatua berdina izanik?" galdetu zuen.

Hondakin hauen garraioari dagokionean, jatorrian ez, "Ecofert-i dagokio hondakinak egoki kudeatzea", eta kontrol lana Nafarroako Gobernuari dagokio Asensioaren esanetan. Artaxoan egindako kudeaketa hartu zuen ahotan GHKren lehendakariak. "Ecofertek ez ditu Zubietako hondakinak bakarrik jasotzen, beste leku askotatik jasotzen ditu hondakinak".

Agertzeari uko

Asensioaren adierazpenei erantzunez, EHBildutik gogorarazi zen, "nonbaiten okerren bat gertatu dela argi dago". Batzar Nagusietako jasangarritasun batzordean Nafarroako Gobernuako ingurumen kontseilariaren agerraldia eskatu zutela oroitarazi zuen EHBilduren bozeramaileak, baina "tamalez uko egin zion etortzeari. Gipuzkoarrek merezi dute jakitea hemen zer demontre pasa den", oraindik "gutziz argi" ez dagoela oharraztearekin batera.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

NOUGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitarteak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



Dagoeneko 43 bazkide ditu Sortaldek. Datozen egunetan informazio-mahai bat ipiniko dute Sutegiko kanpoaldean.

Usurbilgo Udala, Sortalderen bazkide laguntzaile

Sortzaile eta bidelagun izan da hasieratik. Aurrerantzean, Usurbilgo Udala Sortalde Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea Kooperatibako bazkide laguntzaile izango da. Hala erabaki zuten udalbatzak, apirilaren 11n egindako ezohiko osoko bilkuran.

Abiapuntutik hartueman es-tua izan du Udalak egitasmo honekin. Izan ere, Udala izan baitzen energia berriztagarrien komunitatea sustatzeko Goien enpresa kontratatu zuena. Komunitatetik kooperatibarako jauzi egiteko eginiko prozesuaren ondotik urte hasieran aurkeztu zuten Sortalde jendaurrean Sutegin eginiko ekitaldian. Hitzordu hartan, aurrera begirako erronketako bat, "bazkide areagotzea" zela eman zuten aditzera, "lehen proiektuak martxan jarri ahal izateko".

Hasierako 30 partaideren kopurua hazteko aukera zabalik da egun. Herrikide oro izan daiteke Sortaldeko bazkide. Udalak iragan asteko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bazkide laguntzaile izatea erabaki du. 1.000 euroko laguntza eskainiko dio kooperatibari, erabaki

hau bozkatu aurretik udal gobernu taldetik adierazi duten moduan, Sortaldek bideratuko diren proiektuak bultzatzeko; autokontsumorako eguzki plaken egitasmoak, formazio saioak...

Trantsizio ekosozialarekin bat Urrats honek Udaletik bideratzen eta garabidean duten trantsizio ekosozialaren misioarekin bat egiten duela nabarmendu zuen Xabier Aranburu EHBilduren udal ordezkariak. Izan ere, gogo-

UDALAK DIO URRATS HONEK TRANTSIZIO EKOSOZIALAREN MISIOAREKIN BAT EGITEN DUELA

ra ekarri zuenez, besteak beste, energia kontsumoa murriztu, energia berriztagarriak sustatu, gai honen nahiz mugikortasun ereduari buruzko hausnarketa bideratu edota kilometro zero-ko produktuak bultzatzeko sortua da lerrootan mintzagai dugun kooperatiba.

Aho-batez onartua

Udalbatza osatzen duten hiru udal taldeetako kideek (EH-Bildu, EAJ eta PSE) babestu zuten proposamen hau.

SORTALDE KOOPERATIBA BAZKIDETZA KANPAINA BAT SUSTATZEN ARI DA EGUNOTAN

Bazkide egiteko aukera

Udalak egin duen moduan, Sortalde bazkide egiteko aukera eskaintzen ari da sortalde.eus atarian. "Kooperatibaren partaide izan zaitezke, bazkide kontsumitzaile gisara edota laguntzaile moduan", berri eman dute. "Gure asmoa ekimen hau herritar, elkarte, enpresa zein entitatei zabaltzea delarik, ahalik eta parte hartzea zabalena izan dezan".

Bazkide kanpaina, martxan

Sortaldek dagoeneko 43 bazkide ditu. "Hala ere, apirilaren 25erako, ahalik eta bazkide gehien izatea nahi genuke, Foru Aldundiko diru-laguntzak direla eta. Beraz, datozen egunetan informazio-mahaia jarriko dugu Sutegi kanpoaldean". Datak, hauek:

Larunbatak: Apirilak 20, 27.

Orduetgia: 12:00-14:00.

Igandeak: Apirilak 21, 28.

Orduetgia: 12:00-14:00

"Gonbidatu jendea bertartzera, eta gogoratu, webgunetik bertatik bazkidegoko aukera ere izango dela". Hauxe horretarako helbidea: sortalde.eus/bazkidetu/

Egitasmoak

Egun, eskuarte bi proiektu dituzte; batetik, Zubietako frontoiko teilatuan bultzatuko duten 114,45 kWp-ko lehenengo autokontsumo instalazio kolektiboa.

Horrez gain, aholkularitza zerbitzua eskaintzea dute beste helburu nagusietako bat. Hala, fakturazioari edota energia eraginkortasunari buruzko argibideak eskaini edota energia ohituretan eragin nahi dute, baita energia sistemen berritzean, pobrezia energetikoaren gaian edota autokontsumoan, aipatu aholkularitza zerbitzu honen bidez. Gai horietan guztietan egon daitezkeen gabeziei aurre egiteko formakuntza ere sustatu nahi dute. Informazio gehiago, sortalde.eus atarian jaso dezakezue.



Asteartero, ordu eta erdiz paseotxoia eman ahalko da taldean, hitzordura bertarutzen diren guztiokin.

"Usurbil, goazen kalera" sendotua dator bueltan

Herri eragile gehiagoren arteko lankidetzatik sustatu eta herri osoari zuzenduriko eskaintza izango da aurrerantzean, astero paseoak emanez Usurbil zaintzailea sendotzen joatea bultzatu nahi duen "Usurbil, goazen kalera" egitasmoa.

Herri osoaren elkargune eta zaintzarako topaleku, halaxe izango da aurrerantzean, "Usurbil, goazen kalera" ekimena. Lehendik ere abian zena, baina iragan astean Potxoenean egitasmo honi buruz egindako aurkezpenean agerian utzi zuten moduan, indartzea erabaki dutena. Aurrerantzean, lankidetzan jardungo duen antolatzaile taldea handitu dute eta horrekin batera, ekimen honen onuradun edo hartzaile kopurua ere nabarmen zabalduko da hemendik aurrera.

Aurrerantzean, asteartero
"Usurbil, goazen kalera" ekimena asteartero egingo da, aste honetatik aurrera. Momentuz, ekaina amaierara arteko egutegia osatu dute, nahiz gerora irailetik aurrera jarraipena eman asmo dioten dinamika honi. Ordu eta erdiz

paseotxoia eman ahalko da taldean, hitzordura bertarutzen direnekin.

Usurbilgo herri eta auzoetara

Adin guztietako usurbildarrei zuzendua egongo da hitzordua hau aurrerantzean. Ez da alde zuzenetik izena eman behar, agertzearekin aski izango da. Paseorako zonaldea txandakatzeko joango dira astero. Estreinuak ibilbidea, Kaxkoan barrena egiteko zuten hilaren 16an, baina gerora, Zubietan, Aginaga edota Santuenea aldean oinez ibiltzeko aukera izango da. Tokian tokiko eragileek bideratuko dute paseo bakoitza. Aste honetako Kaxkokoa, Udarregi ikastolako eta Gure Pakeak prestatu dute. Horregatik, egitasmo honetan lankidetzara batu dira Usurbilgo, Santueneako eta Aginagako jubilatu elkarteak (Gure

Pakea, Gure Elkartea eta Arrate hurrenez hurren) edota Zubietan, Aginaga eta Usurbilgo ikastetxeak (Zubietan eta Aginagako eskolak eta Udarregi ikastola hurrenez hurren). Oiarde kiroldegia ere bat egingo du ekimen honekin. Hain zuzen, paseoak Oiardok antolatutako bestelako ekintzekin tartekatuko dituzte.

Zaintza ekosistemaren baitan

"Usurbilgo zaintza ekosistemaren barruan kokatzen dugu ekimen hau", nabarmendu zuten Usurbilgo zaintza eko-

'USURBIL, GOAZEN KALERA' ADIN GUZTIETAKO HERRITARREI ZUZENDUA DAGO

sistemako arduradun Maider Irisarrik. Gaineratu zuenez, "nahi dugu izan herri zaintzailea eta komunitate zaintzailea". Tresna gisa ikusten du egitasmo hau, bakardade egoerak saihesteko. Izan ere, "ariketa fisikoa aitzakia bezala hartuta, ematen digu beste helburu batzuk lantzeko aukera"; besteak beste, antolatzen parte hartuko duten eragileei begira, belaunaldiartekotasuna jorratu ahal izatea. "Beste helburuetako bat, elkar ezagutzeko eta partaidetzarako espazioak sustatzea litzateke eta komunitate izaera indartzea, herritar bezala guztiok zerbaiten parte garelaren sentimendu hori sustatzea".

Harremantzeko

"Ekimena oso polita iruditu zitzaigun, eta parte hartzeko gonbita egin zigutenean animatu ginen", adierazi zuen Arrate elkarte kide Mertxe Pikabeak. Ekimenak dakarren onura nabarmendu zuen; "haurrekin, gazteekin, denekin harreman eta denok elkarlanean aritzea, ez bakarrik. Haiek asko dute guri erakusteko guk ere bai. Animatu ginen, pozik gaudete eta ea ondo ateratzen den".

Ildo beretik mintzatu zen baita Udarregi ikastolako hezitzaile Ander Izeta. "Ikasgela barruan gauza asko daitezke, baina ikasgelatik kanpo ere bai. Elkarrekin paseo horiek emanez, hor sortuko diren harreman horiek baliagarriak izango zaizkie bizitzarako, zaintza eta hori guztia beraien bizitzaren erdigunean jartzeko".

"Gazteak oso ilusionatuta daude"

Paseo hauetako hamaiketako prestatzeaz arduratuko den Oinarrizko Lanbide Heziketako zuzendari Idoia Beloki egitasmo honetan parte hartzeko gonbita jaso izanagatik esker oneko agertu zen. "Gazteak oso ilusionatuta daude, beraiek pentsatuko dute zer eta nola egingo duten. Gai horrekin landuko ditugu arlo asko".



Udalak egin duen estimazioaren arabera, 2,2 milioi eurokoa litzateke hiru urteko esleipena.

Haur eskolaren zerbitzu kontratua hiru urtez esleitzeko prozedura abiatzera doa Udala

Haur eskola izan zuen mintzagai udalbatzak apirilaren 11n egindako ezohiko osoko bilkuran. Gai-zerrendako hiru puntuetatik bi 0-3 urte arteko hezkuntza eskaintza duen proiektu pedagogiko honi lotutakoak izan ziren.

Batetik, irailaren 1ean indaraldia amaituko zaion egungoaren antzera, hiru urteko epealdikoa izango den esleipena abiaraztea ontzat eman zuen udalbatzak gehiengo osoz, EHBilduren eta PSE-ren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen.

Berrikuntzak izango ditu, ordea, kontratu berriak. Izan ere, egungoa emakida kontratu bat da. Etorkizuneko, zerbitzu kontratu bat izango da. Aldaketa honen zergatia nabarmendu nahi izan zuen udal gobernu taldeak aipatu osoko bilkuran. Zerbitzu honen kudeaketak dakartzan arriskuak administrazioak, kasu honetan Udalak hartuko ditu bere gain, ez lizitatzailerak. Arriskuak ahotan hartzerakoan, egungo testuinguru sozioekonomiko ziurgabea aipatu zuen alkate

Agurtzane Solaberrietak: jaitze-tasaren murrizketa, bizi-moduaren garestitzea...

Bolumen handiko esleipena

Zerbitzu kontratu honi buruzko zenbait xehetasun ere eskaini zituen alkateak. Hiru urterako, 2,2 milioi eurora arteko bolumen ekonomikoa izan dezakeen kontratua da honakoa. Bere balio ekonomikoa estimatzeko azterlan bat eginga du Udalak. Zenbait zen-

baki nabarmendu zituen udal gobernu taldeak. Esate baterako, urtero 500.000 eurotik gorako bolumen ekonomikoa izan dezake zerbitzu honek (hezitzaileen orduen 450.000 eurotik gorako kostuak eta 86.000 euro pasatxoko gastu orokorrak batuta), hiru urteren buruan ia 1,9 milioi eurokoa. Urteko matrikulazio kopurua-gatik edota iaz onarturiko Hezkuntza Lege berriak eragin ditzakeen lan-baldintzen pa-

**AURTENGO
IRAILAREN 1EAN
AMAITUKO DA
EGUNGO
ESLEIPENAREN
EPEALDIA**

**UDAL
TITULARTASUNEN
13 HAUR ESKOLEK
DOAKOTASUNAREN
IRIZPIDETIK KANPO
SEGITZEN DUTE**

rekatzeagatik Udalak aurreikusia du %20ra arteko doiketa egin behar izatea agian. Hori hala gertatuko balitz, aipaturiko 2,2 milioi eurokoa litzateke hiru urteko esleipen hau.

Estimazio hau egiteko azken urteotan haur eskolako erabil-tzaile izandako batz besteko kopurua (68 haur), zerbitzu hau zenbat orduz baliatu duten (sei ordu) eta zenbat hezitzaile lanean jardungo luketen (bederatzi lanaldi osoz) hartu dute kontuan.

Aurrekoa agortzear

Egungoaren epealdia amaitzear zen eta hauxe izan da hain zuzen, esleipen berriaren tramitazioa hasteko arrazoietako bat. Egungoaren prozedura martxan jartzea 2021eko martxoaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak. Urte hartako ekaineko saioan erabaki zuten Udarregi ikastolari esleitzea haur eskolaren zerbitzua. Uztailaren 6an kontratua sinatu eta irailaren 1ean sartu zen indarrean hiru urterako. Horrek esan dahi du, aurtengo irailaren 1ean amaituko dela egungo esleipenaren epealdia. Hortik deialdi berriaren beharra.

Horrekin batera, bazen bigarren arrazoi bat ere, iragan asteko osoko bilkuran gogorarazi eta azken hilabeteotan herriarekin partekatu izan dutena. Iaz, Eusko Jaurlaritzak azken txanpara gerturatzen ari den 2023-24 ikasturte honetarako haur eskolak doakoak izango zirela ziurtatu zuen; Partzuegokoak ordea. Izan ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dauden udal titular-tasuneko hamahiru haur eskolak erabaki horretatik kanpo utzi zituen; tartean, Usurbilgoa.

"Hasieratik salatu genuen erabaki hura", gogorarazi zuen hilaren 11ko osoko bilkuran alkate Agurtzane Solaberrietak. Izan ere, ageriko diskriminazio egoerak sorrarazi ditu urrutirago joan gabe, Usurbilgo gurasoen eta herri honek muga-

kide dituen udalerrien artean; haietan bai, doakoa baita haur eskola zerbitzua.

Erabaki haren berri izan zu-
tenetik argibide eta bilera eske
aritu arren, udal gobernu tal-
deak hilabeteotan behin bai-
no gehiagotan adierazi izan
duen moduan, ez dute eran-
tzunik jaso. Horregatik, ziur-
gabetzat jotzen zuen testuin-
guru honetan, gurasoek ord-
aindu beharreko haur esko-
laren kuotaren %62a Udalak
bere gain hartzea erabaki zuen
ikasturte honetarako. Behin-
behineko erabakia zela gogor-
arazi zuten hasieratik, 2023-24
ikasturterako hartu-
takoa eta haur eskolaren etor-
kizunaz erabakitzeko haus-
narketa prozesua irekiko
zuela iragarri zuen udal go-
bernu taldeak. "Horretan ari-
tu gara" zioen Usurbilgo al-
kateak aipatu osoko bilkuran.
Lanketa horren emaitza izan
da, besteak beste, iragan os-
tegunean onarturiko haur
eskola zerbitzua kontratatze-
ko esleipen prozedurari has-
iera ematea edota baita haur
eskolako erabiltzaileen bete-
behar eta eskubideak biltzen
dituen araudiaren onespena
ere.

Erabiltzaileen araudia

Haur eskolako erabiltzaileei
dagozkien eskubide eta be-
tebeharrak zehazten dituen
araudia onartzea erabaki
zuen baita udalbatzak apiri-
laren 11ko osoko bilkuran
udalbatzak gehiengo osoz,
EHBilduren eta PSEren alde-
ko botoekin. EAJ abstenu
egin zen.

Araudi honen hainbat xehe-
tasun eskaini zituen udal go-
bernu taldeak. Batetik, haur
eskolako plaza kopurua mug-
atzea erabaki dute. Gehienez,
92 haurrentzako lekua egongo
da. Hala, 12 haurrentzako le-
kua egongo da 0-1 etapan; 26
umeentzako 1-2 etapan; eta,
azkenik, 54 haurrentzako lekua
2-3 etapan. Banaketa honek,
alkate Agurtzane Solaberrietak
azaldu zuenez, "Usurbilen



2024-25 ikasturterako begirako matrikulazio epearen datak ere aurreratu ditu udal gobernu taldeak; apirilaren 22tik maiatzaren 3ra izango da.

egon daitekeen eskaerari erraz
erantzuten dio".

Ratioak ere zehaztu zituen.
Legeak ezarritakoaren azpitik
izango direla jakinarazi zuen.

Gela bat irekitzeko behar-
rezko gutxieneko haur kopu-
ruek ere zehaztu dute arau-
di honetan. Hiru haur behar-
ko dira 0-1 adin tartean, eta
bosna 1-2 eta 2-3 adin tar-
teetan. Halere, "adin taldeak
nahasteko aukera" izango
dela iragarri zuen udal gober-
nu taldeak eta araudian ha-
laxe dago jaso, itxaron ze-
rrendan ahalik eta haur gu-
txien egoteko.

Kuota murriztagoak eta hobariak

Erabilera prezioei dagokie-
nean, garai beteko kuota na-
barmen jaitsiko da. Garai
batean, 300 euro ordaindu
behar izaten ziren. Datorren
ikasturtean, doakotasunaren

"USURBILGOA PARTZUERGOAN BALEGO, UDALAK EZ LUKE GAINKARGA EKONOMIKORIK IZANGO"

USURBILGO EAJ-PNV

bidean, egun osoko erabilera
egingo duten erabiltzaileek 60
euroko kuota ordaindu behar-
ko dute, 40 eurokoa zerbitzu
hau egun erdiz baliatu asmo
dutenek. Kopuruok apirila
amaieran egingo den hilabe-
te honi dagokion osoko ohiko
bilkuran zehaztuko dituzte,
aldaketarik ez bada, hilaren
25ean egingo den saiora era-
mango dituzten ordenantza
fiskalen bidez.

Ordenantza fiskalok aipatu-
ta, alkateak gogorarazi zuenez,
familien errentaren arabera,
haur eskolako hileroko kuota
ordaintzeko %50-90 arteko
hobariak eskuratzeko aukera
izango dute.

Araudi honen testuinguruan,
gainera, Udalaren eta lizita-
tzailearen artean, haur esko-
lako guraso eta langileekin
koordinazio mahaia osatuko
dute. Maiztasun jakin batekin

"PARTZUERGOAN SARTUZ GERO, EGUNGO LANGILEEK EZ ZUTEN SUBROGAZIORAKO AUKERA IZANGO"

AGURTZANE SOLABERRIETA ALKATEA

bilduko da, interesekoak izan
daitezkeen gaiak jorrazteko.

EAJ, Partzuegoan sartzearen alde
Haur eskolari lotuta iragan
asteko osoko bilkuran jorra-
turiko bi gaiei dagokienean,
abstenu egingo zela iragarri
zuen EAJ-k. Izan ere, udal tal-
deko bozeramaile Xabier
Otxoak aditzera eman zuenez,
"Partzuegoan sartzearen alde"
zirela adierazi zuen. Erabaki
hori hartu izan balitz, Udalak
eta herri honek ez lukeela
"gainkarga ekonomikorik izan-
go" zioen. Aldiz, "zerbitzua
ematen jarraitu behar da eta
egindako lana balioan jarri"
behar zela adieraziz, abstenu-
tuko zirela adierazi zuen.

Arrazoi ugari

Udal gobernu taldetik, Par-
tzuegoan sartzeko aukera
aztertu zutela gogorarazi zuen
alkateak, baina bide hau al-
boratu beharrean aurkitu zi-
rela erantzun zion EAJ-ri.
"Marra gorri bat bazen, lan-
gileak", Solaberrietaren esa-
netan. Hezkuntza Sailari egi-
niko kontsultan, jakin zuten
langileek ez zuten subroga-
ziorako aukera izango, Par-
tzuegoan sartuz gero.

Halere, alkateak nabarmen-
du nahi izan zuenez, arrazoi
gehiago ere izan dira Partzue-
goaren bidea alboratzea eragin
dutenak. Batetik, "balorean
jarri" nahi izan dute Usurbil-
go haur eskolaren 22 urteota-
ko ibilbidea da, oso ondo balo-
ratutako zerbitzua". Ildo hor-
retan, jaso izan duten eskae-
retako bat izan da herritik
herriarentzat, hurbiletik ku-
deatzen segitzea, eta baita,
0-3 etapa ez haustea. Izan ere,
Partzuegoko haur eskolek 0-2
urte arteko zerbitzua eskain-
tzen dute. Ulertezintzat jo zuen
beste behin, haur eskolen
doakotasunetik at uztea udal
titulartasunekoak, tartean
Usurbilgoa. "Gurea zerbitzu
publikoa da, titulartasun pu-
blikoak", oroitarazi zuen
alkateak.

EAJ, Haur Eskola Partzuergoan sartzearen alde

Haur Eskola Partzuergoan sartzearekin batera, hezkuntza zerbitzu oro ikastola inguruan batzea proposatu du.

Usurbilgo EAJ-PNVk haur-tzaindegi zerbitzua Haurtzaindegien Partzuergoan sartzeko eta herriko hezkuntza zerbitzu guztiak Udarregi ikastolaren inguruan batzeko proposamena aurkeztu du. Ekimen honen helburua honakoa da: "Usurbilgo haur guztientzat kalitatezko hezkuntza irisgarria eskaintzea". Hori azpimarratu dute herriko jeltzaleek.

Doakotasunari eusteko

Haurtzaindegien Partzuergoak, Eusko Jaurlaritzak finantzatzutako doako zerbitzuak, haurrentzako kalitatezko hezkuntza goiztiarra bermatzen duela gogoratu du alderdiak. Zentzu horretan, Usurbilgo EAJ-PNVk "funtsezkotzat" jotzen du Haurtzaindegien Partzuergo horretan sartzea haurtzainde-

gi-zerbitzuaren doakotasunari eutsi eta epe luzerako finantzaketa ziurtatu ahal izateko.

Egun, Usurbilgo Udalak 200.000 euro bideratzen ditu 2023-2024 ikasturtean zerbitzuaren doakotasunari eusteko. Datorren urterako, "gurasoek 40 eta 60 euro arteko hileko kuotari aurre egin beharko diote zerbitzuaren finantzaketa bermatzeko", jakinarazi du Usurbilgo Eusko Alderdi Jeltzaleak.

"XEDEA HAUR GUZTIENTZAT KALITATEZKO HEZKUNTZA IRISGARRIA ESKAINTZEA DA"



EAJ-PNVko udal ordezkariak, Haur Eskolaren aurrean.

"Ingurune seguru batean"

Hezkuntza-zerbitzuak kokatuta dauden egungo eraikina zaharkituta dagoela gogorazi du alderdiak eta ez dituela eskatutako kalitate-estandarrak betetzen. Horregatik, Usurbilgo EAJ-PNVk hezkuntza zerbitzu guztiak esparru berean, hau da, Udarregi ikastolaren inguruan, batzearen alde egiten du, haurren hezkuntzarako instalazio egoki eta modernoak

bermatzeko "ingurune seguru batean".

Jeltzaleek beraz, herriko haurreskola Haurtzaindegien Partzuergoan sartzean, hezkuntza publikoko sarean integratzearen eta hezkuntza zerbitzuak Udarregi ikastolaren inguruan batzearen aldeko apustua egin dute. Pauso hori ematea "hezkuntzaren kalitatea eta irisgarritasuna" hobetzeko neurritzat joko lukete EAJko ordezkariak.

Gure Pakeak lau antzezlan eskainiko ditu Sutegin

Lau antzezlan antolatu ditu Gure Pakea Elkarteak apirilaren 19an, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko auditorioan. Honako hauek: 'La fablilla del secreto bien guardado', 'El Oso', 'Cuando las mujeres juegan al mus' eta 'Sinceridad'.



Ostiral honetan, arratsaldeko 18:30etik aurrera, Sutegin.

"Vachoca" tailer artistikoa Artzabalgo aretoan

Tailer honen bitartez, helduak sormenarekin harremanetan jarri nahi dituzte. Material desberdinekin esperimentatuz eta jolastuz, momentu atsegin bat igarotzeko xedearekin. Proiektuan zehar eza gututako pertsonen egoerak kontatuko dira, elkarrizketa eta kontzientzia kritiko erakitzailea bultzatuz.

Tailerra apirilaren 25ean egingo da, goizeko 10:00-11:30 artean, Artzabalgo aretoan. 60 urtetik gorakoentzat da baina plaza kopurua mugatua da.

Usurbilgo Elkargunearen laugarren bilkura

Larunbat honetan Udarregiko jangelan batuko dira, goizeko 10:00etatik aurrera. Jorratuko dituzten gaiak, hauexek:

- Elkargunea ezaugarrituko duten balioak.
- Kudeaketa eredua.
- Barne-antolaketa.
- Nolako espazioa nahi den.
- Zer beharrei erantzun.
- Nola egituratu.
- Partaidetza prozesua amaitu eta eraikina izan bitarteko denbora horretarako dinamika eta egitekoak zehaztea.
- Elkargunearen izena.
- Beste esperientzien ezagutza.

Buztinarekin jolasean arituko dira Santuenean

Santuenea auzo elkarteak Usurbilgo Udalaren laguntzaz antolaturiko saioa, ostiralean, apirilaren 19an, 18:00-20:00 artean auzoko ludotekan (Santuenea 16an).

Izena aurrez eman beharko da santueneaguretxikiak@gmail.com helbidean. Sarre-ra 3 eurokoa izango da, doakoa bazkideentzat. "Ez ahaztu mantal bat ekartzea eta zure artelana etxera eramateko kaxa bat! (tupper handi bat edo kartoizko kaxa txiki bat)", ohartarazi dute antolatzaileek.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan, garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz, behala hasteko moduan 74745055

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lane-

tarako ere. Orduka zein interna aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzaileria behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurlaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gorpildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko sopoportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 19	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 20	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 21	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteartea, 23	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 24	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Osteguna, 25	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 26	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 27	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 28	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Eskubaloia Oiardon

Apirilak 20, larunbata

- 15:30 Jubenil neskek: -Usurbil K.E.
- Zurizuri Group Legazpi
- 17:30 Senior mutilak: -Saizar Usurbil KE
- Romo Eskubaloia

Apirilak 28, igandea

- 12:00-13:15 Benjaminen eta alebilen entrenamendua (11:50ean kiroldegi atarian biltzeko deia).

Pilota Usurbilen

Apirilak 19 ostirala, 17:45

- Infantil 3. Mailan, binaka: Pagazpe-Soraluze
- Infantil 2. Mailan, binaka: Pagazpe vs Tolosa 2
- Kadete 1. Mailan, 4 1/2 Udaberri txapelketa: -Pagazpe (Errasti) -Gazteleku

Apirilak 21 igandea, 12:30

- Kadete 1. Mailan, 4 1/2 Udaberri txapelketa: Pagazpe (Pagola)-Azkoiti

Futbola Haranen

Apirilak 20, larunbata

- 9:00 Infantil neskek
- 10:30 Infantil mutilak
- 12:00 Kadete mutilak A
- 15:30 Erregionalak
- 17:45 Jubenil preferenteak

Apirilak 21, igandea

- 10:00-12:00 Futbol eskola
- 12:00 Kadete neskek B
- 15:30 Jubenilak B
- 17:45 Preferenteak

HILDAKOAK



Javier Castro

Dominguez

Apirilaren 14an

hil zen,

52 urterekin.



Juan Bautista

Sansiñena Altuna

Apirilaren 15ean

hil zen,

72 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 19

USURBIL Antzezlanak, Gure Pakeakoen eskutik

Lau antzerki eskainiko dituzte.
18:30 Sutegin.

LARUNBATA 20

USURBIL Usurbilgo Elkarguneari buruzko bilera

Udarregi ikastolako jangelan elkartuko dira. Elhuyarrek dinamizatuko du bilera.
10:00 Udarregiko jangelan.

KALEZAR Pelaioenearen irekiera, auzotarren eskutik

12:00 Pelaioenear.

USURBIL 5. Dantzari Txiki Eguna

Egun osoko jardunaldia.

USURBIL 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatua

"Zumetaren Usurbil" erakusketa ere bisitatuko dute.
12:00 Sutegitik abiatuta.

IGANDEA 21

ZUBIETA Bertso-ibilaldia

Jakoba Errekondok eskainiko ditu argibideak eta Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña arituko dira bertsoan.
10:00etan, Iruin sagardotegian.

USURBIL Organo kontzertua Salbatore elizan

Thierry Escaichesk eskainiko du.
17:00 Salbatore elizan.



Zubietako Iruin sagardotegiko aparkalekutik abiatuko da bertso-ibilaldia.

Bertso-ibilaldia, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin

Igande honetan eta Alkartasuna kooperatibaren eskutik, "sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada izango da, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañaren bertsoak adituz eta Jakoba Errekondoren argibideak jasoaz".

Iragan urrian Aginagako erriberetako sagastietan berrera egin zuten ibilaldia.

Oraingoa, Zubietako Iruin sagardotegiko aparkalekutik abiaraziko dute; goizeko 10:00etan.

Izen-ematea, Alkartasunan

Izena aurrez eman beharko da alkartasuna@usurbil.com email helbidera idatziz edo telefonoz bestela, 943 361 114 zenbakira deituta.

Igandean, organo kontzertua

Musikenek eta Foru Aldundiak 'Gipuzkoako Organoak Plazara' zikloaren zazpigarren edizioa antolatuko dute. Usurbilgoa izango da azken saioa. Igande honetan, 17:00etan Salbatore Elizan, Thierry Escaichen eskutik, "Frantziako inprobisazioaren erakusle nagusia den Thierry Escaich organista ospetsuak bi inprobisazioen arteko programa aurkeztuko du Usurbilen". Salbatore elizarekin eta Usurbilgo Udalarekin lankidetzan egingo da ekitaldi hau.

"Zumetaren Usurbil" erakusketa

- Astelehenetan: 17:00-20:00.
- Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Larunbatak, igandeak: 11:30-14:00 / 17:00-20:00.

Sareren mobilizazioa

Apirilaren 26an egingo dute, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Ixabel Agirresarobe Txokoalden

Maiatzaren 4an, Ixabel Agirresarobe ipuinen kontalariak Txokoaldetako ibilbideko "istorio misterioitsuak" kontatuko dizkie bertaraten diei haurrei. Txokoargi elkarrean, 17:00etan.

Kontzertua Aginagan

Loita Amada galiziarra, Rukula eta Zaparra arituko dira Eliza Zaharrean. Maiatzaren 4an, 22:30etik aurrera.

 **Kima**
MASAJE LEKUA

 · KIROK MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ehbildu

* ALDAKETA DA ORAIN *



Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2024
udaleku irekiak

IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 3an hasi eta 30ean amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30. Ostegunetan irteerak egingo dira eta 16:30ean bukatuko dira.

Ordainketa LABORAL KUTXako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da

UDAJOLAS eta HAURRAREN IZEN-ABIZENAK adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811
(Usurbilgo Udaleko kontua)

Izena emateko epea:

apirilak 19tik apirilak 29ra (biak barne)

Kuota: 105 € Famili Ugaria: 90 €

Onartutako hobia	KUOTA arrunta hobiairekin	Familia Ugariaren KUOTA hobiairekin
% 50	52,50 €	45 €
% 75	26,25 €	22,5 €
% 90	10,50 €	9 €

Izen-ematea egiteko lotura:

<https://labur.eus/b9fG7>



Aurkeztu beharrekoa:

(elkartea@noaua.eus helbidera bidali)

·Ordainketa-agiria

- Gizarte segurantzako txartelaren kopia.
- Familia Ugariaren kasuan: Familia Ugariaren txartela edo Familia Liburuaren kopia
- Hobarien kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

OHARRA: Apirilak 29 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko. Informazio gehiago elkartea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefonoan. Guraso-bilera, ekainaren 18an (asteartea) Sutegiko auditoriumean, 17:00etan.

noaua

